

## JEXUX ARZA'REKIN TXALAPARTARI BURUZ

Garagarrillak 23, arratsaldeko zortzirik izanen dira oker handirik gebe, eguraldi txarra ezezik, otz... zerua goibel, kolkoa otza, euria... norik esan udaran sartu gerala. Usurbil'ko kaletan nabil zer egin handirik gabe geldiuene batzuk eginaz eta usurbiltarren bizitz paketsua txastatu. Bainan halako bizitasun bat nabari dut gaur nire inguruan, jai bezpera dirudi, jai-egunaren erresuman gaudela esango nuke.

Kale-nagusitik goruntz «Goiko plazarañño» iritxi naiz eta pilotan dabiltzan ume batzueri begira nago. Hontan ume sail bat dator kalia gora gudi zahar bati bultzaka, zakarrez betetako gurdi bat gainera... orain ulertzen dut bihar San Juan izaki eta San Juan bezpera gaur.

Adurrak halanhita nere ume-garaiko San Juan egunetaz-oroituhaz nere burua berrituz ume arkituaz... Egun hauek dakarzikidaten pentsamentutan murgildu naiz... lozorroan nago, bainan denbora gutxi. Ezkil-dorrek bederatzik kanpalaik «esnatu» naitu eta berak izan dira nire ume munduko pentsamentutatik gaurko gazte-mundura ekarri nautenak. Gabeko bederatzik dira.

Hauen zai egondu naiz gaurko egunak eskeifituen eginbehar bat betetzeko. Bai, Usurbil'ko gazte batekin hizketatzeko gelditua nintzan eta bereganat jotzen zuzenkiro. Jexux Arza txalaparta jotzen duten analetako bat da, gazteena hain uxuen. Jexux Joxeanton'en anaia dugu, gaztetasunez jantzitako gaztea, ixilla, agian bainan mutilla hitz hunen esanahi zabalean eta esan beharrik ez euskaldun mutilla.

Jexux'ek irripark kezkatu batekin hartu nau, bainan hori bai, patxarako mutilla dugu, plaza-gizona. Oraindik bere lanak bukatzeko zeduzkan eta horiek egin bitartean hor jardun gera kontu-kontari, «eskuk berotzen» esango genduke. Eskuk berotu ondoren goiko gelara igo gera eta partiduari hasiera eman diegu saka niregain zegoelarik.

Zertarako gauden jakin ezkeror—hasi natzale esaten—ez nuke hasi nahi txalaparta zer dan galdezka... azken urte hauetan zerbait entzuten ari gera txalapartari buruz, esaten diren gauz asko arinkeri batzuk badira ere. Bainan ni beste galdera batzukin natorkizu ta nahi gaiten.

—Zure hastapenak txalaparta jole bezela?


—Hara, galdera hau ez dago neri bakarrik egiteko, bi anaiontzat bada galdera hau. Gure hasiera orain dala bi urte ikusi genduan «Pelotar» dokumentaletik dator. Han ikusi genituan lehenbizikoz Zuaznabar anaiek txalaparta jotzen eta dizudan bezela handikan dator gure txalaparta jotzeko irrika hori, ta gure herriko instrumentu ritmiku bat, izanik eta gure euskal-izaeraren zantzu bat, indarberritzen alegindu gera.

—Indarberritzen diozu, auldua ahal zegon edo galzorlan?

—Txalapartak nire uestez oso aberatsa izan behar zuen antzinean. Bere iturburuetara jo ezkeror agian erlijio-sustraietatik elikatzen dan instrumentu bat dela esan beharrean arkituko giñake. Gero mezu ta deiak adierazteko bitarteko bat izanen zen seguru aski, alkarrekiko har-emanetan jartzeko del bat. Beste instrumentu bat, Adarra, dator esan dutan hau zihurtzera: ba dakigu txalaparta jo aurretik adarra jotzen zela lehenbizi txalapartaren esan nahia hartu behar zutenak erne egon zitezen esan nahi hori jasotzeko. Gure baserritan izandu duan azken bete-beharrak sagardo-jotzerako del bat izatea izan da, eta oraindik oraintsu azkeneko cgeitamar urte hauetan batzarretarako del bat izan da. Horregatik esaten nuen txalaparta oso aberatsa izanen zela eta, guk ezagutu edo jakin ez genitzazken funtzioak beteko zituela. Gaiñera esan behar eta txalapartaren galzoria adieraztera dator, guk Euskal-Herrian bi txalaparta joleekin arkitu gerala: Ergobia'ko Goikoetxe-larrak eta Lasarte'ko Zuaznabar anaiek. Hauek izan dira gure aintzindariak eta haueri zor diegu txalaparta egun arte irauna.

—Egungo ta aintzineko txalapart jotzeak bai ahal dute bereiztasunik?

—Dakizunez txalaparta bi lagunen artean jotzen da. Jotzaile batek ritmo bat markatzen du beti, binaikua edo ttakun izenarekin ezagutzen duguna eta besteak errena egiten dio kolpe bat edo birekin; errena bakoitzaren esku dago. Eta bereiztasunari baga-gozkio esango nuke lehengo txalaparta oso ots batteko edo monotonoa zela, beti bizitasun edo intensi-



—Beste galdera eginen dizut: txalaparta bat-bateko jarduna ahal da, inprobisazioa ahal da?

—Txalaparta beti da, inprobisazioa, guk ez dugu pieza jakinik jotzen eta horregatik esan liteke txalaparta barrango sentipenen agerkunderako tresna bat dela poesia poetarentzat dan lez. Era huntan pauso bat eman dugu eta gure joaldiak humela izaten dira: lehenbizi poesi bat esan eta poesi horrek neri adierazten ditena, nere barrenean sortzen dituen goetak txalaparta bidez adierazi; orduan poesi hori tema bat izango da ta nik tema horren gainean mintzatuko naiz txalapartaren bidez. Beraz txalaparta inprobisazio huts eta jatorra da. Eta hori herrela izanik, txalaparta izan ditekela adibidez protesta-bide edo gaurko abeslariak erabiltzen dituzten beste gai horiek adierazteko bide. Jakiña, ikusiko duzun bezela hunek entzulea txalapartaren esan-nahia jasotzeko gai izatea eskatzen du eta hau ez da lortzen behin edo bitan entzunaz; izkutuko lokarri batek batu behar ditu txalaparta jotzailearen eta entzulearen gogo-bihotzak. Beraz, nirekin ados egongo zera txalaparta jotzea eriti bat dela eta eriti danez, eriti hori txastatu nahi bada eriti begirada batekin ikusi beharko dela esatean, museoko kuadro batekin gertatzen dan bezela.

—Txalaparta edonork jo ahal dezake, erreza ahal da jotzea?

—Txalaparta jotzen ikastea oso erreza da esentziaz: bikakua ta errenaren arteko lokera hartu eta ikastea orduerdiko lana duzu bainan esentziari eksistentzia erantsi behar diozu eta hor dago txalaparta jotzailearen habilidade ta aberastasuna.

—Jardunaldi edo aktuazio asko ahal daukazute garai huntan?

—Galdera aldrebesa egin didazu ta erantzungo dizut esanaz itxura danez txalaparta jotzeko egur bat eta makil bi baiño gehiagoko zerbait behar dela egun Hego-Euskal-Herrian, gure esku ez dagon zerbait. Nahikoa esanen nuen noski.

—Azkeneko galdera eginen dizut: gaur egun nola arkitzen da txalaparta? Bere etorkizunari buruz hitz bi?

—Nik uste egun txalapartak gorakada handia egin duela eta indatu dela. Txalapartajole asko sortu dira Euskal-Herrian: Errenderi'n, Donosti'n, Ernani'n, Lasarte'n, Ondarru'n t.a. eta gaur sortu diren txalapartajotzaileeri eskez galbide ta heriotzatik aske dela; bainan tamalez ez gera bere aberastasun ugari ta emankorraren jabe izatera iritxi; horregatik gaurko txalapartak autonomia izan beharko du eta bide berriak urratzen aleginduko da. Autonomia jo-eran eta esanahiean. Esan dezakegu txalaparta bilakaeraren gurrillari itsatsirik dagoela, hare ta gehiago eritiedierazpenaren bitarteko bat izanik, egungo musikaren aintzindari izan ditekela eta nere iritzi orain arkitzen dan saiozko-aro hunen ondoren kokatuko dela gaitontzeko ereskin edo onstrumentu guziren artean beste bat gehiago izatera iritxi.

Azken galdera hau bukatu bezain laister, San Juan eskean dabiltzan gazte-kuadrilla iritxi da ate ondora eta ohitura zaharrari jarraiki bertsoari baten koplak entzuk ahal izan ditugu. Eta onbestez...